

2026KO ZEZEILAREN 20A

begoñazpi

aldizkari

JAZOTAKOA JASO

AMA LURRA

BEGOÑAZPI IKASTOLAK HIRU BIDEO AURKEZTU
DAUZ BILBOKO ELIZBARRUTIAK AURTEN
GIZATERIAREN ETA LURRAREN ARTEKO
HARREMANAREN GAINEAN ANTOLATUTAKO
LEHIAKETAN

GAINERA

ARIMADUN
MUSIKA
OSPITALEAN

BEHARTUTAKO
MIGRAZIOA,
EZTABAIDAGAI

ARATUSTEAK ETA
EMAKUME
ZIENTZIALARIAK

JAZOTAKOA JASO BIDEOKLIP LEHIAKETA

Begoñazpiko bideoklipen aldeko botoa emon daikezu

Daborduko, IX. edizioko 'Jazotakoa Jaso / Comunicacion Cultura' lelopean, Kultura Erakundeen Mahaiak antolatutako Bideoklip Lehiaketako bideoak ikusgai dozuez.

Aurten, "Amalurra eta Laudato si" gaia jorratuko da, gizateriaren eta Lurraren arteko harremana aztertuz, jorratu dan "Amalurra eta Laudato si" gaiak, galdera honi erantzun deuto: "Zer emoten deusku eta zer emoten deusagu?"

Begoñazpi Ikastolako ikasleek hiru bideo aurkeztu dabez. Horreetan klik egin eta gehien gustatzen jatzuezanei botoa emon daikeezue. Gogoratu, Bilboko Elizbarrutiko Kultur Erakundeen Mahaiak urtero antolatzen dauala lehiaketa hau.


Fedearen basoa



"Gure etxea zabortegi bihurtzen ari gara"



Munduaren sorrera



Musika, zaintza edota arintzea be bada!

Gure ikasle ohia dan Irati Gañanek, ekimen solidario batean parte hartzen dau. Biola hartu, Galdakao-Usansolo Ospitaleko unitate ezbardinetara joan eta paziente zein osasun profesionalei lasaitasuna emoteko ezezik, lagun egiteko be uneak sortzen dauz. Talentua eta konpromisoa besteen zerbitzura zelan jarri daitekezan erakusten dauan adibidea dogu.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Aratustek, mozorroak eta dibertsioa baino gehiago

Mozorroetatik haratago doazen esperientzia honeek, ikaskuntzaren parte dira, besteak beste, adierazpena, bizikidetzeta eta irudimenaren garapena sustatuko dabe eta.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Migrazioari buruzko hausnarketa DBHn

IDBHko ikasleek GKEa dan Edukalboan komunitatearen eskutik, "Ihesa" tailerrean parte hartu dabe. Hau, Erljioa ikasgaiaren lantzen hasi diran migrazioari buruzko gaiarekin bat etorri da.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO



Emakume eta Neska Zientzialarien Eguna

Ikasleen artean, bereziki, nesken artean bokazio zientifikoak pizteko garrantzia nabarmentzeko, egunari berea emon eta ospatzeari ekin deusogu.

INFO GEHIAGO | MÁS INFO